

Ron Carter eta Melissa Aldana Getxo Jazzen

MUSIKA • Ron Carter kontraba-xu jotzaile estatubatuarra eta Melissa Aldana saxo jole txiletarra batu dira 45. Getxo Jazz jaialdiaren egitaraura. Ekainaren 29tik uztailaren 3ra egingo da jaialdia, eta, atzo iragarritako bi musikari horiez gain, Cyrille Aimee, Fred Hersch, Gonzalo Rubalcaba eta Aymee Nuviola ere ariko dira bertan.

Jack Higgins idazle ingelesa zendu da

LITERATURA • Jack Higgins idazle ingeles arrakastatsua igandean hil zen, 92 urterekin. Higginsek espioitza eta suspentseko literatura landu zuen, eta 85 liburu argitaratu zituen 1959. eta 2017. urteen artean, horien artean *The Eagle Has Landed* (1975), zeinen 50 milioi ale saldu diren mundu osoan.


Chris Bailey hil da, The Saints taldeko abeslaria

MUSIKA • Chris Bailey The Saints punk-rock talde australiarreko abeslaria larunbatean hil zen, 65 urte zituela. 70eko hamarkadaren erdialdean sortu zuen taldea, eta *I'm Stranded* kantuak (1976) egin zuen ezagun. Taldetik berrogei kide baino gehiago pasatu ziren lau hamarkadatan, baina Bailey izan zen hasieratik bukarara iraun zuen kide bakarra.

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus

Gaur, asteartea, museorako sarrera doakoa da



+55 Gida kulturalak

LA INDUSTRIALIZACIÓN EN LOS
SIGLOS XIX Y XX

JUAN IGNACIO AIZPURUA

11:00 + 18:00 castellano

55 urtetik gorako pertsonel zuzendutako bisita gidatuak museoko erakusketa iraunkorrera. Doan, erreserbak webgunean.

STM

San Telmo Museoa

Gau ilunena, donostiarren begietatik

Toti Martinez de Lezearen 'Bretxa' euskaraz argitaratu du Ereinek • Eleberrian oinarritutako musikal bat estreinatuko dute datorren urtean

Ainhoa Sarasola

1813. Gerra galdu du Josef Bonapartek, eta, Wellington jeneralak gidatutako tropa aliatuek jazarrita, frantses gudarostea penintsulatik erretiratzeko ari da. Bost urteko okupazioaren ondoren, donostiarrek askatzailetzat dauzkaten zain daude, eta harresien barruan geratzea erabaki dute askok. Gutxiak usteko zuten orduan abuztuaren 31ko hura gaurik ilunena izango zutela. Hilketak, jipoiak eta arpilatzeak izan ziren gau osoan, eta, gerra harrapakin bihurtuta, emakume gehienak bortxatu ere egin zituzten. Herritarrak sarraskitu ondoren, hiriarri su ere eman zioten hurrengo egunean. Historiako pasarte ilun hori herritarren begiradatik kontatu zuen Toti Martinez de Lezea idazleak *La Brecha* eleberrian (2006), eta, *Bretxa* izenburupean, euskaraz plazaratu du orain Erein argitaletxeak, gaztelarazko edizio berrikusiarekin batera. Halaber, liburu hori oinarri duen musikal bat prestatzen ari dira.

Uxue Razquin editoreak gogorazi du Martinez de Lezea idazle «oparoa» dela, eta hamaika obra plazaratu dituela haur zein helduentzako literaturan. «Gertaera historikoetan maisutasunez oinarritzen ditu bere istorioak, baina gero, giza harremanetan murgiltzen da erabat». *Bretxa* nobelan ere, herritar apal bat jarri du protagonistaren lekuan: Maritxu Altuna txokolategilea, alarguna eta alaba baten ama, hiriko harresien barruan gelditzea eta negoziari eustea erabaki duena. Haren bidez kontatuko du nobelak herritarrek bizitako amesgaiztoa. «Gertakari ilun horretatik abiatuta, herritar zibilen bizitzetan zentratuko da idazlea».

Gertaera historiko hura ezaguna dela uste du idazleak, baina berretzat hori guztia jasan zuten herritarrengan zegoen istorioa, eta bereziki emakumeak aipatu ditu. «Denok dakigu zer pasatu zen,

baina emakumeen bortxaketak, hilketak, familiak... hori zen istorioa. Normalki, nobela historikotetan, gerra bat dago, eta zenbat ziren hemen, zenbat han, nortzuk ziren jeneralak, nortzuk irabazleak... gerra, gerra, gerra. Baina gu, herritarrak, ez gara agertzen historia handian, eta hori zen asmoa, Donostiako jendeak istorioa kontatzea, zatitxo bat behintzat».

Martinez de Lezeak azaldu du istorioaren hasieran Donostia iristear daudela espainiarren aliatu ziren tropa ingeles eta portugesak, gerra hartan ustez «onak» zirenak – «onak komatxo artean, zeren gerran zein diren onak eta zein gaiztoak, hori ikusteko dago» –. Idazlearen esanetan, «espainiarrak eta fusilari gipuzkoarrez osatutako bi konpainia Iruñera bidali zituzten. Hain zuzen, ideia zelako tropak hirian sartzea eta egin zutena egitea. Zergatik? Hilabete lehenago Gasteiz inguruan zeudelako, eta tropak ez zirelako hirian sartu, Wellington jeneralaren albokoa zen Alava jene-



Herritarrak, normalean, ez gara agertzen historia handian; nire asmoa zen donostiarrek kontatzea istorioaren zatitxo bat»

Toti Martinez de Lezea
Idazlea

ralak han zituelako familia, lagunak, etxeak eta negozioak, eta ez zuelako utzi soldaduak sar zitezkeen». Mugarantz jo zuten soldaduek, eta oraindik ez zutela soldatarik jaso azaldu du idazleak. «Ordaintzeko moduetako bat izaten zen lapurtzen edo nahi zutena egiten uztea». Hori egin zuten Donostian. «Bretxatik sartu ziren. Donostiarrek kalera atera ziren haiei harrera egitera, eta soldaduek tiro egin zieten, tratu txarrak eman, emakume guztiak bortxatu...». Hurrengo egunean



Oihan Vega, Toti Martinez de Lezea eta Valen Moñux, Donostian. M. ANDRES/FOKU

herritar guztiak hiritik bota zituztela gehitu du, eta kale bati salbu hiri osoari su eman ziotela. «Etxeak arpilatu ondoren, etxez etxe, su eman zioten guztiari».

Horren ondoren donostiarrek hiria berreraikitzeke hartu zuten ekimena ere izan du hizpide idazleak. Eta erre aurretik zuen itxura ia berbera eman zioten Donostia berreraikiari. «Egun, Parte Zaharretik paseatzen baduzu, 1813an egon zintezke; bi kale izan ezik, berberak dira kaleen zabalerak, eraikinen garaierak, plazak... Horrek niri asko lagundu zidan nobela idazten, ez nuelako irudikatut behar, bistara nuelako».

Bere liburuak euskaraz argitaratuta ikustea «plazer handi bat» dela adierazi du idazleak. «Opari handi-handi bat da niretzat». Miren Arratibel «itzultzaile bikainak» euskaratu du *Bretxa*.

Hiria, inoiz ikusi ez bezala

Liburuaren aurkezpenean, hura oinarri duen musikala prestatzen ari direla jakinarazi dute Oihan Vega eta Valen Moñuxek. Bergara Antzerki Musikala elkarteak jarri du martxan egitasmoa. Duela sei urte, idazlearen etxera joan ziren asmoa azaltzera, eta ondo go-goan du Vega Martinez de Lezeak bota zien esaldia: «Harrituta begiratu gintuen, eta esan zigun: 'Zuek erotuta zaudete, eta eroak

etxe honetan ongi etorriak dira'». Orduetik, harekin lan egitea plazer izan dela azaldu du. «Hasieratik ulertu zuen zer egin nahi genuen, eta dena erraztu digu».

Vega nabarmendu du istorioaren atzean «drama bat» dagoela, eta horixe dela taularatutakoa. «Geurea den drama bat da, geurea den istorio bat, eta kontatu nahi dugu orain arte kontatu ez den bezala». Urteotan gaiari buruz gauza ugari egin direla ekarri du gogora, «baina beharbada ez tamaina handiko musikal baten formatuan». 150 artistak parte hartuko dute bertan – abeslariak, aktoreak, dantzariak, musikariak... –, baita kultur elkarte ugari ere, hala nola Bergarako Musika Eskolak, Donostiako Tempo 22 dantza akademiak eta Union Artesana elkarteak, besteak beste.

Buruan bi premisa zituztela lan egin dute: eleberriak kontatzen duena «erabat» errespetatzea, eta zehaztasun historikoa gordetzea. Horretan, Jose Maria Leclercq historialari eta arkeologoaren eta Jose Javier Pi Chevrot arkitektoaren laguntza eta aholkuak izan dituzte.

Vega arduratu da musika konposatzeaz, eta Moñux eszenografia «naturalista» bat diseinatzeaz; biek zuzenduko dute obra, eta 2023ko urtarrilaren 13an estreinatuko dute, Donostiako Viktoria Eugenia antzokian.